

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

3/2020 Foru Araua, martxoaren 20koa, martxoaren 18ko 2/2020 zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko, onesteko premiazko zerga neurriak COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko

Arabako Batzar Nagusiek, Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak 2020ko martxoaren 20an egindako bilkuran, ondoko foru araua onetsi dute:

3/2020 Foru Araua, martxoaren 20koa, martxoaren 18ko 2/2020 zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko, onesteko premiazko zerga neurriak COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko premiazko zerga neurriak COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipaturiko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko premiazko zerga neurriak COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA